



VII. 2022 San Juan jaiak argazki lehiaketa

Oinarriak

Gaia

Argazkien gaia "*San Juan jaiak Arrasaten*" izango da. Argazkiak Arrasateko 2022ko San Juan jaietako egunetan zehar egindakoak izan beharko dira, 2022ko ekainak 17 eta 2022ko ekainak 26 egunen artean, biak barne.

Izen-ematea

Izen-ematea doakoa da eta nahi duen pertsona orok parte hartu ahal izango du lehiaketan.

Artgazki elkarteko bazkide eta zuzendaritzako kideak ere aurkeztu ahal izango dira lehiaketara, betiere epaimahaia osatzen ez duten bitartean.

Gehienez ere BI argazki bidali ahal izango dira partehartzaile bakoitzeko, lehiaketak@artgazki.org helbidera. Parte hartzeko epea **2022ko ekainak 27a** gaueko **22:00**etan izango da.

Argazkiarekin batera, hurrengo datuak adierazi beharko dira: izen-abizenak, helbide elektronikoa, telefono zenbakia eta argazki bakoitzaren izenburua.

Argazkien ezaugarriak

Zuri-beltzean zein koloretan egindako argazkiak aurkeztu daitezke. Hauek, kalitatezko inprimaketa bat egiteko tamaina (paxeletan) nahikoa eduki beharko dute.

Espresuki debekatuta dago muntaia bidez sortutako argazkiak aurkeztea. Epaimahaiaren ustez manipulatutako izan diren argazkiak baztertu egingo dira. Aurkeztutako argazkiei ezin zaie inongo elementurik erantsi, kendu edo tokiz aldatu.

Parte-hartzaileek bermatu egin beharko dute lehiaketara aurkezten dituzten argazkiak norberak egindakoak direla.

Argazkien aukeraketa eta epaia ematea

Epaimahaiak ahalmen osoa dauka oinarri hauekin bat ez datozen argazkiak baztertzeko; baita bere iritziz gustu txarrekoak edo iraingarriak izan daitezkeen lanak lehiaketatik kanpo uzteko eta ez argitaratzeko ere.

2022ko Arrasateko San Juan jaiak amaitu eta hurrengo astean zehar aukeratuko ditu epaimahaiak lehiaketako irabazleak. Argazkigintza eta arte alorretako adituek osatuko du epaimahaia.

Epaia 2022ko uztailak 2an, larunbata, emango da.

Sari banaketa 2022ko uztailak 3an, igandea, izango da, 19:00etan Arrasateko Kajoi tabernan.

Argazkien eskubideak

Argazki elkarteak, lehiaketaren antolatzaile den aldetik, egileen datuak modu egokian erabiliko dituela bermatzen du, abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoaren arabera (Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzkoa, LOPD).

Antolatzaileek argazkiak erreproduzitzeko eskubidea izango dute, informazioa zabaldu edo jardueraren bat sustatze aldera, baita lehiaketa honetan parte hartutako argazkiak erakusteko ere, betiere egilearen izena aipatuta.

Era berean, antolatzaileek Arrasateko Udalari eman ahalko dizkiote lehiaketa honetara aurkeztutako argazkiak. Arrasateko Udalak, berriz, ezin izango dizkio beste inori eman argazkiak egilearen baimenik gabe.

Sariak

Argazkirik onenak:

- 1. Saria: 300 € eta garaikurra.
- 2. Saria: 150 € eta garaikurra.
- 3. Saria: 100 € eta garaikurra.

Argazkirik originalena: 100 € eta garaikurra.